

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 9/11/2022

| Saila      | Laburpena   |  |
|------------|---|--|
| Zerbitzuak | Miraflores auzoko bizilagunek eskatu dute bete daitezela 2022ko martxoan egindako bileran hartu ziren konpromisoak: errepideak eta arekak mantentzea, sasiak eta hustubideak garbitzea, edukiontziak hobetu eta berritzea, bai eta argiak konpontzea ere. | Duela gutxi zoladura egin da jaitzieraren eskuineko aldean dauden edukiontzietarako. Mankomunitatetik adierazi digute beharren arabera garbitzen dela, eta ez dagoela programa zehatzik. Aste batzuetan 2 edo 3 aldiz pasatzen direla eta beste aste batzuetan ez dira pasatzen. Komentatu digute horixe izan zela hartutako konpromisoa (saiatzea astean behin joaten) eta baieztatu digute 2022ko martxotik asko hobetu dela. Hustubideei dagokienez, teoriar urtean behin egin beharko litzateke, Mankomunitateko 8 udalerrietako hustubideekin bezala; baina gaur egun ez da horrela egiten, zeren toki askotara urtean 5 edo 10 aldiz baino gehiagotan joan behar izaten dute, eta hori da Mirafloresenen gertatzen dena. Horrez gain, argiteria berrikusi eta konpondu da; azken aldiz, apirilean. |
| Zerbitzuak | Udalak auzoan lan egin dezala eskatu du Mirafloreseko auzokide batek, pandemiaren ostean, jende asko igarotzen baita bertatik.  | Goian emandako erantzun bera.  |
| Zerbitzuak | Bizilagun batek, San Andreseko garaje-plaza baten jabea, kexa adierazi du karea jausi zitzaiola-eta; eskatzen du beste plaza bat emateko.   | Halako kasuetan, garaje-plaza berrikusi da eta egiaztatzen bada egoera ez dela egokia, beste bat emango zaio libre eta baldintza hobean dagoena. Era horretako bi aldaketa egin dira.  |
| Zerbitzuak | Bizilagun batek salatu du arratoi asko irteten direla Legarrera igotzeko arrapalan dauden jardifetatik.   | Desratizazioaren arduradunari abisua pasatu zitzaion, arazoa konpontzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan.   |

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 9/11/2022

| Saila        | Laburpena  |   |
|--------------|--|---|
| Udaltzaingoa | Bizilagun batek salatu du Arratebideko tailer mekanikoaren espalo inguruan beti daudela kotxe asko aparkatuta, eta horrek oinezkoen igarobidea eragozten duela.  | Toki horretan zortzi bat ibilgailuk aparkatzen dute. Bizi guztian egin da horrela. Nahiz eta ibilgailuak gaizki aparkatuta egon, oinezkoen pasabidea oztopatuz, oinezkoek kalearen beste aldeko espaloitik ibiltzeko aukera daukate. Ibilgailuek ez dute oztopatzen Legarregainera joateko eskaileretarako eta arrapalarako sarbidea. |
| Hirigintza   | Bizilagun batek eskatu du San Andres Egoitzaren azpian Udalak dituen aparkaleku-plazak denen esku jartzeko.  | Garaje horiek alokatutak daude.   |
| Obrak        | Bizilagun batek adierazi du Legarren jendea elkarrekin egoteko dagoen leku bakarra plaza ez-irisgarri bat dela. Eskatu du plaza horren irisgarritasuna hobetzeko eta aisialdiko toki gehiago sortzeko, eta, toki horietan landaretza gehiago jartzeko. | Ez zaigu argi gelditu zein kokaleku aipatzen den.   |
| Hirigintza   | Herritar batek eskatu du Pitxargaineko bide zaharra berrreskuratzeko, hala, Arratebide eta Eibarko erdialdeko lotura berreskuratu ahal izateko.  | Aztertzen ari gara  |
| Zerbitzuak   | Kexa adierazi du Arratebide kaleko 20 A eta 20 B zenbakien arteko eskailerak zartatuta eta goroldioz beteta daudelako, bereziki, bigarren eskailera-zatitik aurrera.   | Kaskote batzuk erretiratu ziren, baina erretiratu ahal izateko aldamiio bat jarri beharko litzateke; eskatzaileari jakinarazi zaio aurrerago egingo den lan bat dela.   |
| Hirigintza   | Iradoki du lursail gehiago eros daitezkeela arbolak eta landare autoktonoak landatzeko, eta, hala, eukaliptoak landatzea eragozteko.   |   |

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 9/11/2022

| Saila                  | Laburpena   |   |
|------------------------|---|---|
| Zerbitzuak             | Eskatu du begiratoki bat eta banku batzuk jartzeko Arrateko gurutzean.  | Ez da egoki ikusten banku horiek jartzea, landa-ingurune bat delako.  |
| Hirigintza             | Salatu du jarraitzen dutela tiro-pitxoi lehiaketa egiten, Arraten.  | Jarduerar hori araudira egokitzen da. Gainera jarduera pribatua da.   |
| Hirigintza             | Eskatu du plater-tiroketan geratzen diren kartutxo-hondarrak jasotzeko.   | Jasotzen dira. Dena den, behin baino gehiagotan esuaktu zaie egiteko. Beraz, jarraipena egiten da.                                      |
| Obrak                  | Eskatu dute begiratoki bat jartzeko 5 Km-aren eta Arrateren arteko zatian.  | Ez da bideragarria  |
| Obrak/<br>Udaltzaingoa | Salatu du ibilgailuak abiada bizian pasatzen direla Itzioren eta Mirafloreseko sarreraren artean. Eskatu du bazterbide bat eraikitzeko oinezkoak babesteko eta baita banku batzuk jartzeko ere. | Erdigunetik kanpo dagoen toki bat da, eta, hortaz, haren kontrola Ertzaintzari dagokio.   |
| Zerbitzuak             | Eskatu du sasiak kentzea Bildosolaneko parkean.   | Kendu dira eskaileretatik eta pasabide publikoetatik ateratzen diren sasiak. Lursail hau berrurbanizatu egingo da, igogailuak jartzeko. |
| Obrak                  | Bizilagun batek eskatu du zebra-bide bat egitea Itzioko parkearen parean.   | Aparkalekua aldatzea aztertzen ari dira, eta Aldundiari zebra-bide bat sartzea proposatu zaio.  |
| Alkatetza              | Herritar batek eskatu du Torrekuan autobus-geltoki intermodal bat egitea.   | Gure apustua Ego Gain da. Ez dugu kokapen hori bideragarria ikusten.  |

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 9/11/2022

| Saila      | Laburpena   |  |
|------------|---|--|
| Zerbitzuak | Bizilagun batek eskatu du fatxada pribatuetatik grafitiak kentzeko eskabideei kasu egiteko.   | Grafitiak kentzeko programan ez dira bakarrik kentzen fatxada pribatuetan dauden pintadak, baizik eta fatxada eta espazio publikoetan daudenak ere kentzen dira. Programa bi fasetan egin da, eta lan-talde ezberdinek hartu dute parte. Udal espazioetatik grafitiak kentzen uztailearen 20an hasi eta azaroaren erdialdean amaitu zen; egun horretan hasi ziren fatxada pribatuetako grafitiak kentzen. Lan hori azaroaren 15etik otsailaren 25era bitartean egin zen; egun horretan amaitutzat eman zen programa. |
| Hirigintza | Kexa adierazi du Ardantzan eraikiko den aparkaleku berriagatik. Adierazi duenez, aparkaleku horrekin, kendu egingo da toki horretan dagoen berdegune bakarra. | Kexa ulertzen dugu. Baina erdiguneko kale batzuk oinezkoentzat jartzeko proiektu bat dago, eta horrek aparkaleku batzuk galtzea ekarriko digu eta berri batzuen ipintzea. Aparkaleku berri horiek baloratzen ari gara. Proiektua egin dago eta aurrekontuarekin gaude. Hala eta guztiz, ingurumenean eragin txikia duen eraikina izango litzateke, eta, gainera, estalkian aisialdirako guneak sortuko litzuke.  |
| Obrak      | Galdetu du ea zenbat igogailu egingo diren Mekolan eta nola sartu behar diren garajeetara urbanizatu bitartean.   | Bi igogailu jarriko dira bi fasetan. Lehenengoa pasealekutik Mekola kaleraino joango da eta bigarrena Mekolako kaletik Arrate Bidera. Garajeetarako sarbidea eta irteera Mekola kaletik izango dira, lanek irauten duten bitartean.  |

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 9/11/2022

| Saila      | Laburpena   |  |
|------------|---|--|
| Zerbitzuak | Batek eskatu du sasoiko landareak berriz ere aprobetxatu daitezela.   | Aztertu egingo da proposamena. Nolanahi ere, legez, Udala derrigortuta dago sortutako hondakinak kudeatzaile baimenduen bidez gestionatzera. |
| Zerbitzuak | Bizilagun batek eskatu du konpon ditzatela Arratebidetik Mekolara bitarteko eskailerak. Dioenez, arriskutsu daude eta estuak eta ilunak dira. | Jarduketak eraberritze integrala eskatzen du; hortaz, soluzio bat ematea Obra Sailari dagokio.   |